

AITA PATXI

Baneukan Aita Patxi pasiotarraren bizitza sakon ezagutzeko gogoia. Espainako gerra zibilean, berarekin ibili izan ziran nire aitaren anaiei, bein baino geiagotan, entzun izan deutset berari buruz ainbat gauza. Ta udazkenean, asetu izan dot egarri bizi ori. Gurutzeko San Pabloren jaian, eskuratu neban Euban bertan “Aita Patxi” deritxon liburua. Ibaizabal argitaletxeak 2000ko Urte Santuan argitara emona. Ta egilea ain ezagun eta maite dogun sermolaria, bertsolaria eta idazlea, Aita Martzel Andrinua, Iruzubietako seme jatorra.

Bost atal ditu liburuak. I. Nik santu izan nahi dot; II. Bakegizona guda-sutearen erdian; III. Aita Patxiren Gurutzebidea; IV. Aita Patxi Herri-misiolari; V. Misiolari haundi baten azkena. Atal oneek osotzeko geigarri batzuk be baditu. Ta liburua amaitzen da, Aita Patxiren erakutsiak guk ere otoitz giroan ausnartzeko.

Liburu interesgarria, atsegina ta erreza irakurtzeko. Euskera aberatsa ta goxoa darabil egileak. Tarteka bertso ederrak be badakaz laburpen gisan. Ta gainera kantau nai izan ezkeru, ez jakoz falta bertso-doinu ezagunenak be.

Nik neuk goitik beera irakurri izan dot. Ta liluratuta geratu naz Aita Patxiren bizitzaz. Ta bere bizitzako gauza bat azpi-

markatzekotan auxe aukeratuko neuke KARMEL irakurleentzat. Ona emen biotza dardar jarten dauan pasadizua.

Hil neu horren lekuan

“Zintzoak beti emoten dau bere maitasunaren ezaugarria bizitzan; baina gitxien uste danean, gorengo maila joten dau. Ama zintzoaren antzera: seme-alabak arriskuan dirala, ezin da ezer egin barik egon; are gehiago, inoiz bere bizia ere jokatzen dau euren alde. Aita Patxi ere maisu trebea dogu ebanjeliozko bizijokoan, baina honako honetan ordago jo eban. Mariak bere Semeari bidera urten eutsanekoa ondo gogoan eukan. Jokaldi honek testigu danak itzi ebazan harri eta orma eginda, eta behingoan zabaldu zan aho-belarri, alde bateko zein bestekoen artean: ‘Aita Patxik bere burua jarri dauala, heriotzara kondenatuta egon dan baten ordezt’. Hara: asturiar komunista prisioneru batek ihes egin eban, baina behingoan harrapatu eben. Eta gehiagoko barik, heriotz zigorra ezarri eutsoren. Azken orduko espiritu-laguntzak eskeindu eutsoezan, baina holakorik ez eban onartzen. Aita Patxi gogora etorri jakon, eta bera bialdu eutson, eritzi guztietakoak onartzen ebela eta. Aita Patxi bera dogu kontalari: ‘Sarjento napar batek agertu eustan harako asturiar batek ez ebala nahi ez abaderik, ez prailerik. Neu joango naz, erantzun neutsan; gaua bere ondoran emongo dot, eta Ama Birjinak bigunduko deutsa bihotza’. Esan eta izan, Aita Patxiren laguntza pozik hartu eban; ziur egoan bera ere maite-maite ebala. Eta gauean zehar, dast!, argi bizi bat bihotzera: ‘Nik errukarri haugaitik zeozer gehiago egin behar neuke’. Sargentoagana joanda, plausta: ‘Gizajo horren lekuan neu jarten naz. Horren lekuan neu hil naizue’. Emeterio Garzia Juarez berak kontatzen deusku zehatzago:

— Komandante jauna, mesede bat eskatzera nator.

— Zer nahi dozu?

— Esteban Plagaro askatu daizuela, eta haren lekuan neu hil naizuela. Gizon honek umeak eta emaztea daukaz eta ume-

ak aita barik eta emaztea senar barik geldituko dira. Ni baino beharrezkoagoa da munduan.

Nik harri eta zur eginda, erantzun neutsan:

— Burgosko Junta Militarragaz kontatu behar dot. Eurak baietzean badagoz, emongo jatzu eskatzen dozuna -eskerrak emonaz eta irribarrez aldendu zan nigandik Aita Patxi.

Komandanteak Aita Patxiren borondatea norainokoa zan jakin nahirik, Burgosko Junta Militarrek ontzat hartu ebala jakitera emon eutsan; eta orma ondoan jarri eban, fusilatzeko prest. Aita Patxik eskerrak emon ondoren, bost minutu belauniko otoitzean egon zan, Jaunari bizia eskeintzen.

— Prest nago, bota! erantzun eutsan orma ondotik beso zabalik.

Nik fusilak prestatzeko agindua emon neutsen hiltzaileei. Aita Patxi irribarrez eta zoriontsu agertzen zan asturiar komunistearen alde bizia emotera joiala eta. Nik ezin izan nebazan gorde neure bihotz-ikara eta malkoak eta esan neutsan:

— Kendu zaitez hortik, Aita Patxi!

Ez dago Emeteriorik, ez Zeledoniorik, hau ikusita, bihotza zartatuko ez jakonik.

Bonbak eta indarkeriak gizakia hil egiten dabe maitasunak, barriz, bizi barriaren jabe”.

Aita Patxi, santu eta abertzale fina dogunik, ezin lei ukatu. Euskadiko gudari jatorrenak besteen ordeztan emon izan dabe euren bizia ta ez inorena moztu.

A. Olea